

03/07 AKTA

2007KO MARTXOAREN 22AN EGINDAKO BATZARRA

Mendexan, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta zazpiko martxoaren hogeita bian, arratsaldeko zazpi eta erdietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Luis M^a Ocamica Gogenola alkate jauna buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Juan Miguel Txakartegi Zendoia
Martin Aranzamendi Gabiola
Txomin San Martin Badiola
Miguel Iturbe Sarasola
Maria Magdalena Gabiola Arostegi
Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Jose Manuel Laka Arrillaga

Alkate-udalburu jaunak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- LEHEN OKUPAZIORAKO HIRIGINTZ BAIMEN ESKAERA.- Pedro Sololuze Txurruka jaunak, Leagi auzoko gune ruraleko Iturburu etxearen partzela barruan etxebizitzari erantsita eraikitako garajerako lehen okupaziorako hirigintz baimena eskatu du.

Kontuan izanik eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa eta udal arkitekto aholkulariaren txostena, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Leagi auzoko gune ruraleko Iturburu etxearen partzela barruan, etxebizitzari erantsita eraiki den eta Pedro Sololuze Txurruka jaunaren jabetzakoa den garajerako lehen okupaziorako baimena ematea.

2.- M^a TERESA OKAMIKA ANDREARI OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMAN, EGOKI BADA.- M^a Teresa Okamika Telleria andreak, Iturreta auzoko Loikiz baserrian kortan gela bat sortu eta tejabanari teiltua kentzeko obrak egiteko aurkeztu duen udal baimen eskaeraren berri eman da. Obra honen aurrekontua 19.967,30 eurokoa da.

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Eskatutako obretarako udal baimena ematea, ondoren adierazten diren baldintzapean:

1.- Obrak udaletxean aurkeztutako agiriei guztiz egokitu beharko dira.

2.- Obrak burutzeko epea urte betekoa izango da, baimen hau jakinerazten denetik zenbatuta. Epe hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko

dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3.- Obrak hasi aurretik udal gordailuzaindegian 612,40 euro ordaindu beharko ditu, espendientean agertzen den likidazioaren arabera. Ordainketa egin ondoren dagokion erresguardoa luzatuko zaio.

4.- Ukitzen dion indarreango legeria guztia bete beharko da, bereziki laneko osasun eta segurtasunari buruzkoa.

5.- Lizentzia hau jabekuntza eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

2) Udalbatzak 1991ko urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, 612,40 euroko dirulaguntza eman zaio, baserria konpontzeko obrak direlako.

3.- HONDARTZAINAK KONTRATATZEKO DEIALDIA.- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurugiro Zuzendaritzari eskatu zaio jadanik, urtero lez eta Karraspioko hondartzarako hondartzainen zerbitzuari dagokionez, lau hondartzain kontratatzeko dirulaguntza.

Aurrekoa ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) 2007ko udaldirako lau hondartzain kontratatzeko deialdia zabaltzea.

2) Udal honek egingo duen aurre-hautapenerako, hautagaiek bete behar dituzten baldintzak ezartzea, ondorengo hauek direlarik:

- Mendexan urte bete aurretik enpadronatuta egotea. Erroldatuen artean, Mendexan bizi direnak izango dute lehentasuna, eta bizi direnen artean, iazko urtean ez zutenak hondartzain modura lanik egin.

Mendexan erroldatuta ez daudenetik Lea-Ibarrako herrietakoak izango dute lehentasuna eta hurrengo Lea-Artibaiko beste herrietakoak.

- Euskara jakitea.

- INEMek luzatutako "Tarjeta de desempleo" delakoa edukitzea.

- Eskola-Graduatua, Oinarrizko Batxilergoa, Lehen Graduko Lanbide-Heziketa edo balio berdineko titulua edukitzea.

3) Eskaerak aurkezteko epea: martxoaren 27tik apirilaren 26ra.

4.- 2006KO OHIZKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.- Jarraian Kontuhartzaitzak idatzitako bi mila eta sei urteko ohizko aurrekontuaren likidazioaren berri eman da. Honi loturik daude, indarreango legediak derrigorrezkotzat jotzen dituen agiriak et bere laburpena ondorengo hau da:

Kaxako existentziak 2006ko abenduaren 31n.....	242.043,50 €
Data berdinean kobratzeko daudenak.....	170.710,63 €
Data berdinean kobratzekoak ABSOn.....	7.832,49 €
Data berdinean ordaintzeko daudenak.....	298.543,34 €
Data berdinean ordaintzekoak ABSOn.....	118.115,70 €
DIRUZAINZAREN GERAKINA.....	3.927,58 €

Aurkeztutako agiriak eta kopuruak ikusi ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du 2006ko ohizko aurrekontuaren likidazioari onarpena ematea.

5.- BAKE-EPAILE KARGUA BETETZEKO DEIALDIA ZABALTZEA.- Idazkariak azaldu du orain arte jardun duen Mendexako Bake Epaille titularrak kargua uzteko nahia agertu duela, urte asko baitarama karguan. Halere, norbait egokia aurkitu arte jarraitzeko prest agertu da.

Horren aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Deialdia zabaltzea, interesaturik balego eskaerak aurkez ditzaten. Horrez gain, kontaktu pertsonalak izan egokiak izan daitezkeen herritarrekin

6.- 2007. URTEARI DAGOKION TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ERROLDA ONARTZEA.- 2007. urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga erroldaren berri eman da, biltzeko zenbateko osoa 18.334,00 eurokoa delarik.

Udalbatzak aipatu errolda onartzea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarki baten bidez jendeaurrean agertaraztea erabaki du, interesatuek egokiak deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten.

Era berean, borondatezko kobratze epea, ekainaren 1etik abuztuaren 31ra ezartzea erabaki da. Epe hau bukatuz gero, premiamendu bidez iraungo du kobratze prozedurak, kostuen %20a gehiturik.

7.- ZUBIKO TABERNAKO BILTEGIAREN ERRENTAMENDUA.- Alkate jaunak azaldu du Zubiko Tabernako biltegia gutxienez 1966tik Luis Marquez Vilches jaunari alokatuta dagoela.

Jakinik errentaria hil dela, Udalbatzak ahobatez erabaki du:

Bukatutzat ematea Mendexako Udala eta Luis Marquez Vilches jaunaren arteko Zubiko Tabernako biltegiaren errentamendua. Akordio hau jakinarazten denetik zenbatu beharreko hiru hilabeteko epean biltegia hutsik eta udalaren esku utzi beharko da, giltzak emanez.

8.- ERRALDE, DURANGOKO HILTEGIA S.L. KREDITU OPERAZIO BATEN CONFORT LETTERRA ONARTZEA, BIDEZKO BALITZ.- Alkate jaunak hitza hartu eta laburki azaldu du Erralde hiltegiak finantzaketa lortzeko lehiaketa antolatu ostean, BBVA, Ipar Kutxa eta Euskadiko Kutxak sindikatutako kreditua lortu duela Erralde hiltegi berria eraikitzeko.

Ikusirik Erralde, Durangoko Hiltegia, S.L.k egindako eskaria, bere bitartez Mendexako Udalari eskatu zaio kreditu operaziorako Confort Letterra onartzeko.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Erralde, Durangoko Hiltegia, S.L.k Erralde Hiltegi berria egiteko BBVA, Ipar Kutxa eta Euskadiko Kutxak sindikatutako krediturako udal honi eskatutako Confort Letterra (adostasun eskutitza) onartzea.

2) Erabaki honen berri interedunei jakinaraztea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

9.- KARRASPIO HONDARTZAN BIZKAIKO KAYAK-SURF TXAPELKETA EGITEKO BAIMEN ESKAERA.- Lekeitioko “Dzanga” Piragua Taldeak eskaera aurkeztu du, ekainaren 1, 2 eta 3an Karraspio hondartzan Bizkaiko Kayak-Surf Txapelketa antolatzeke. Besteak beste, BBKren pare bat kaxeta jartzeko baimena eskatu dute eta baita ere gauzez autokarabana eta kanpin dendak jartzeko.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Lekeitioko “Dzanga” Piragua Taldeari baimena ematea 2007ko ekainaren 1, 2 eta 3an Karraspioko hondartzan Bizkaiko Kayak-Surf Txapelketa egiteko. Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Ospakizuna dela eta gerta daitezken kalteen erantzuleak antolatzaileek izango dira. Bere esku egongo da, ere, antolakuntza guztia.
- Antolakuntzarako beharrezko diren baimen guztiak eskatu beharko dituzte antolatzaileek, bereziki segurtasunari dagozkionak. Hondartzaren garbiketa ere arduradunekin koordinatu beharko da.
- Eskatutako udalaren megafonia ekipoa utziko zaie antolatzaileei.
- Argitaratzen diren kartel, folleto, seinale, e.a. guztietan argi agertu beharko da Karraspioko hondartza Mendexa dela eta euskararen presentzia bermatu beharko da.

10.- UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN (UEMA) ESTATUTOEN ALDAKETA ONARTZEA.- Ikusirik Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) Batzar Nagusiak 2004ko urriaren 16an egindako bilkuran bere estatutuen 1., 4. 23. artikuluan eta aldi baterako 2. erabakia aldatzea onartu zuela.

Ikusirik, dagozkion urratsak eman ondoren, mankomunitatea osatzen duten udal guztietako Osoko Bilkurek onartu behar dituztela aldaketa horiek gehiago osoz.

Guzti hori kontutan izanik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) estatutuen 1, 4, 23 artikuloen eta aldi baterako 2. erabakiaren aldaketa onartzea, UEMAko Batzar Nagusiak 2004-10-16an onartuarekin bat etorritz.

11.- GASTUAK.- Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, beharbada onartzeko:

- Construcciones Ogella, S.L.ren fakturak, 1.025,90 € eta 122,80 €
- Luis M^a Okamikari, 203,03 €
- Saneamientos Ondarroa, S.L.ren faktura, 89,91 €
- Lan Hotzen faktura, 937,86 €
- Egondo, S.A.ren faktura, 336,59 €
- Ongizanen faktura, 641,86 €
- Laikorren faktura, 573,68 €
- Agal Motor Comercial, S.L.ren faktura, 1.701,59 €
- Comunidad Propietarios Monte Kurlutxuri, 2.771,76 €

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu jaunak bilera amaitutzat eman du gaueko hamar eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.